

## Gure proiektuaren deskribapena

Gu Zumarraga eta Legazpiko 16-17 urte bitarteko gazteak gara, eta proiektu honen bidez, produktu berri bat sortu nahi izan dugu, gure inguruneari bultzadaxo bat emateko plastiko gutxiagoko gizarte baten aldekoak gara eta.



Gure proiektuarentzako ideia hurrengo hau da: Aterki bustiak lehortuko dituen makina bat sortzea, zorua ez bustitzeko eta jendearen erosotasuna errazteko helburua duena.

Gaur egun hainbat tokitan aterkiak lehortzeko eta hauek ez bustitzeko erabiltzen diren poltsak ordezkatzeko helburua dugu, ingurumenari laguntzeko asmoarekin.



Beraz gure produktua jendetza handia biltzen den tokietara bideratuko dugu. Hala nola entitate publikoak: (osasun zentroak, udaletxeak...) eta supermerkatuak.

